

ARANTZAZUKO 500 URTE FRANTZISKOTARRAK

Joseba INTXAUSTI

*Arantzazuko Santutegiaren ezaugarrietako bat erlijiosoen eskumenean bizi izana da. Berrikitan, Arantzazuko frantziskotarrek bertako beren 500 urteak ospatu dituzte (1501-2001), beraz V. Menduena. Liburu honetan biltzen ditugun idazlanak ere berorren karietara idatzi dira.

Egia esan, bostehun urteek beterik izan behar zuten lehentxeagotik, zeren eta Alexander VI.a Aita Santuaren 1501eko Buldak berretsi eta zuzenetsi bakarrik egiten baitzuen jada Santutegian egon bazeuden frantziskotarren presentzia, eta ez oinarri berrietatik deus eraiki. Hala ere, Erromako agiri hori dugu Arantzazuko Lehen Ordenako fraide frantziskotarren albisterik zaharrena gorde diguna. Horregatik hartu da haren Bulda hura Menduereko ospakuntza mugatzeko¹.

Ospatu, bai, baina zer? Zein izan daiteke honelako Menduerearen esanahia euskal oroimen historikoan, bostehungarren urteko talaia honetatik begiratuta?

ARANTZAZU BERE NORTASUN HISTORIKOAN

Arantzazuko hau Santutegia da, Andre Mariaren Santutegia, Euskal Herrian lekutua. Geografikoki

Euskal Hegoaldeko erdi-erdian kokatua dago Arantzazu; baina, mende luzetan (1845a arte), Oñatiko Konderrian zegoelarik, inguruko euskal Herrialdeetatik berezia egon da. Elizbarrutiz Kalahorrikoa zen, baina Iruñeko Dioziesiarekin mugante.

Gipuzkoan dago orain Arantzazu, baina Araba bertantxe izan du beti; Nafarroa ibilaldi labur batean atzeman daiteke Arantzazutik, eta Bizkaia bistan ageri da Aloñatik, ordu batzuetara alegia. Bidari historikoen San Adrian bertatik bertara dago, eta gertuago oraindik Kalahorriatik kostaldera zetozen bideetako bat, San Joan Artiatik doana.

Zalantzarik gabe, hurbiltasun hauek ere lagundu dute Arantzazu erlijioso historikoa eraikitzen. Arantzazurako bideak ez dira bakarrik sinbolikoak izan, eta Santutegiaren erakarmena ziurtatzeko balio izan dute. Arantzazu paradoxa batean bizi izan da, alde honetatik: bertako mendi malkartsua gogorazi izan dute erromes-kanta eta historialariek, baina zailtasun horri gaina hartzeko lain biderik ere izan du².

Euskal Herriko Santutegi handienen artean (Andre Mariarenak batzuk: Estibalitz, Begoña; Santuenak besteak: Loiola, Xabier, Urkiola; etab.) Arantzazukoak ezaugarri historiko gomutagarriak ditu.

* Idazlan hau, *Hermes* aldizkarian argitara emandako lan baten berridazketa da (*Hermes*. 3. zenb., 2001eko Urria, 60-70); batez ere Ordena frantziskotarraren eta Euskal Herriaren ikuspuntuetatik egindako oharra aurkituko ditu irakurleak hemen, ia gehiena aurreko orrialdeetako lanaren osagarri gisara.

¹ Santutegiko artxibozainak azaldu berri digu Arantzazuko frantziskotarren sorrera hura nolakoa izan zen, bere liburuan: ZUBIZARRETA, K. (2001): *Los orígenes del franciscanismo en Arantzazu / Frantziskotar bizitzaren basiera Arantzazun*. Arantzazu: Edizio Frantziskotarrak.

² Parajearen bakardade urrunaren eta Santutegirako bide zail-errazen arteko paradoxa (erromantzeroak ere kantatua), Arantzazuko historia moderno oneneraino heldu da: LIZARRALDE, J. A. (1950): *Historia de Virgen y Santuario de Arantzazu*. Arantzazu.

Lehen alde historikorik seinalatuena, bertako Fraideartean bizi-iraupen luzea izango litzateke: 500 urte horiek, hain zuzen. Horrelako beste Santutegi-historiarik ez dugu Euskal Herrian, tamaina eta segidatasun horiek dituenik, herriguneetatik urrun baina bertako errealitate fisikoari helduz (San Migel Aralarakoaren antzera) eta fraideekin erakundetasunari eusten (Loiolan bezalatsu).

Arantzazun, Santutegiko eraikuntza fisikoa nekeza izan da beti, baina behin eta berriro heldu behar izan zaio horri, handikiro heldu ere, gertatutako suteen hondamendiari gaina hartzeko (1553, 1622, 1834). Horrek belaunaldi ezberdinen eta jende anitzen borondate eta indarrak eskatu ditu. Honetan, ahalegin-errepikatze soziala izan daiteke Arantzazuko beste bereizgarria: etxagintza erroetatik osterara gora fraide, agintari eta herritarren erabakiz jasotzea³. Eta tradizio hori XX. menderaino luzatu da.

Santutegi handietan maiz gertatu ohi denaren bidetik, Arantzazukoa ez da izan bere baitara bakarrik bildutako erakunde erlijioso; ez da hori izan fraideen jokabidea, eta ezta Arantzazu maite izan dutenena ere. Ezerk baino hobeki adierazten dute hori Arantzazuko Amaren Ameriketako Kofradi Sentarte sekularrek, hemen bertako Kofradia berriak (1917), edo XX. mendean argitara eman diren aldizkariak. Santutegiak nabaria izan du kanporabehar hori, lehenik eta behin bere zeregin erlijiosoetan, baina baita, adibidez, kulturegintzan ere. Aipatuko dugu alde hau geroxeago.

Alderantziz, herritar asko abiatu izan da Aloña mendira, erromes gisa. Kuantifikazio historiko zehatz jarraitua zaila izan arren, erromes-ibileren honelako historia badirudi –neurri berean, hain iraunkorki, geografia hain zabalarekin eta hain antolatua– beste euskal Santutegietan ez dela tamaina berean gertatu. Urkiola izan daiteke agian kasurik hurbilena. Santutegia, ongi zenetan, indartsu ageri zelako, eta ezbeharretan guztien indarrak behar zirelako, Euskal Herri osotik hurbildu da jendea, era eta tamaina ezberdinetan, garaien arabera, taldean eta bakarka.

Arantzazuren nortasun historikoa, hein handi batean, Institutu Erlijioso jakin baten jarduerari loturik egon dela: frantziskotarrak izan dira Andre Mariaren Santutegi hau instituzionalki eraiki eta indartu dutenak. Fraideen rol hau ez da batere arrotza Santutegi kristauen historian, baina Euskal Herriko beste kasuetan baino eraginkorragoa ageri da

alde hau Arantzazun. Herriarena den Santutegiak (definizioz da halakoa edozein Santutegi) eta Ordena frantziskotarraren bertako Komentuak historia ulertezinak dituzte, elkarren ondoan begiratzen ez badira. Gertatu, horrela gertatu da historia hau.

Oro har, beste Santutegi gehienetako historietan bezalatsu, Arantzazukoari ere kosta egin zaio “dionesitartasuna” irabaztea (lortua baldin badu behintzat). Jakina denez, Santutegiak -kristauak eta ez-kristauak- batez ere erlijiotasun herritarri loturik sortu dira, herritarren sinesmenak asmatu izan ditu, ez teologoaren gogoetak edo hierarkiaren erabakiek. Honek ez du esan nahi, ordea, Santutegiaren euskal gizartekotasun hori bertako edo eliz edo herri-arduradunek lagundu ez dutenik, batzutan bortizki lagundu ere.

ARANTZAZU HISTORIKOAREN ERAIKUNTZA

Etxegintza eta zaintzaileak segurtatu arren, Santutegi bateko talde-eraikuntza izpirituala lanbide luzea izan ohi da, sorrerako historietatik hasi eta ondoko mendeetan arrakastaren sabaia jo arte, halakorik lortzen denean.

Batzuetan programatua ere izan daiteke eraikiera hori, nabarmenki programatua. Ideologiko-soziala izan ohi da berori, herri sinestunak eta unean uneko teorikariek elkarrekin jaso; kasu bakoitzean jakin behar nork zer jarri duen eta nork gehiago, hark ala hauek. Eraikuntza horietako bat izan zen San Martin Tours-ekoarena, adibidez, eta beste hainbaten kasuak aztertu dituzte berrikitan historialariek (Rocamadour-i ikaslan serioak eskaini zaizkio, e. b.). Santutegiaren arrakasta ez zen izaten bat-batekoa, eta horretara iritsi aurretik lurralde hurbileko herritarrek eta idazleek asmo handiz lan egin zuten, “mirarien” sona ahoz aho eramanez eta “Historiak” eta “Kantategiak” idatziz⁴.

Legenda, mirari (*miracula*), herri-erromantze, olerki landu, historia eta abarrek hartu izan du parte Santutegien iruditeria (*imaginaire*) sortu, bez-titu, itxuraldatu, hedarazi eta bizkortzen. Fededunentzat goitik *emandako misterioaren egoitza* izan da Santutegia, baina aldi berean fededunak berak bere sinesmenetik atondu eta jantzi du Santutegiko *dobain misterikoa*: Santutegia, ba, emana eta hartua da (erlikia, irudia, gertakaria), eta aldi beran, fedeak sortua. Herri fededunak bere erlijiotasun herritarretik sortua, noski, eta, gainera, buru eta bi-

³ Lizarralderenean ikus daiteke herritarren parte hartze hori, aipatutako data ezberdinetakoa: 80-81 (1553-1568), 100 eta 105-110 (1622), 364-370 (1846).

⁴ CHELINI, J.; BRANTHOMME, H. (1982): *Les chemins de Dieu. Histoire des pèlerinages chrétiens des origines à nos jours*. Paris: Hachette. 86-88.

hotz jakinek –pertsonea historikoek, alegia– elikatu ere bai⁵.

Sorkuntza horrek bere ibilera izan du Arantzazun ere. Herritarrek beren gisara hartu zuten hitza, 1468ko Agerpeneko Ermita ttikiaren inguruan (oñatiarrak eta arrasatearrak aipatu izan dira beti, lehen ordu haietan), Irudiari aterpea emanez, bide berriak urratuz eta Serorak ere Ermita ingurura bilduz; fraideak geroago, urte batzuen buruan, inguratu ziren Aloñara. XV.aren hondarretarako, bide luzea zegoen eginda Arantzazun, zinezko Santutegi bat sor zedin, hau da, erromesak ingurutik eta urrunagotik erakarriko zituen gune erlijiosoa zen jada hura.

Ondorioz, 1522an aski indar zuen Arantzazuk Eneko Loiolakoa bertara hurbil zedin. Igoera hau ere sinbolikoa gertatuko zen gero, Arantzazu-zaleen oroimenean. Erreforma Katolikoak XVI. mendean izandako kristau erromes eredu katolikoa San Ignazio izan baitzen⁶.

Herri-fedetik zetorren Arantzazuko historia «mitikoak» bi lagungarri eraginkor izan zituen: Santutegian bizitzen jarritako serora eta fraideak, alde batetik, eta bestetik, Santutegiaz idatzi zuten lumagizonak. Ez da pentsatu behar, gainera, azken hauek, guztiak, fraideak izan zirenik. Bi, behinik behin, sona handiko historialariak izan ziren: Esteban Garibaiko, arrasatearra, eta bestetik, Joan Arkaiaiko, arabarra. Biek ere, bakoitzaren obraren barnean lekuz kanpo (edo tamainaz kanpo, bederen) hitz egin zuten Santutegiaz. Bi horiek, eta beste bi erlijiosok (Gamarra eta Luzuriagak), osatu zuten XVI-XVII. mendeetan Arantzazuko «mitologia misterikoa», eta geroztik berorren itzalpean egon da Santutegiko bizitza XX. mendea arte. Santutegiko arrakastaren parte on bat iturri haietatik dator.

Garibaik bere *Compendio Historial*-ean –beraz, Penintsulako Erreinuen Historia osoa bildu nahi izan zuen obran: 1571– sartu zuen Santutegi txiki honen lehenengo azalpen historiko inprimatua⁷. Liburuaren gaiak eta jiteak ez, baizik autorearen jaiera eta sinesmen-hobespenekegin zuten hori, hau da, berez ez zegokion Historia hartan Arantzazukoari halako lekua ematea, ez baitago ahazterik Garibai bera Arantzazura erromes ibilia zela eta semea ere Santutegi horretan izan zuela fraide⁸. Felipe II.aren kronikari ofizial hau izan zen, ba, Santutegiaren propagandari onena.

Antzeko zerbait gertatu zen mende bete geroago, Arabako Probintziaren lehen historialariarekin, beronek Batzarren enkarguz bere *Compendio Historial de Alava* burutzean (c. 1665)⁹. Joan Arkaiaiko, Gasteizko Alkate ere izandakoak, luzexka jardun zuen Arantzazuko Santutegiari buruz, hau da, egotez Araban ez zegoen Santutegiaz, eta testua amaitzean zera idatzi zuen:

Confieso que me he alargado en esta narración pero la entrañable devoción que tengo a este Santuario y el estar esta tan radicada en los corazones de los Alaveses me podrán disculpar si acaso he sido prolijo en ella.

Hau jakinik, ez gara sobera harrutuko Santutegiko lehenengo historialari orokorrak arabarrak ditugula jakitean (Gaspar Gamarrako, eta Joan Luzuriaga), izan ere Gasteizko frantziskotarren komentu handia¹⁰ eta Araba bera sekula baino hurbilago baitzeuden XVII.ean Santutegi frantziskotar honetatik. Gamarra-ren obrak gure egunak arte itxaron behar izan zuen argitara irteteko, Luzuriaga-renak bere edizio-ibileran ezusteko bideak egiten zituen bitartean: Mexiko, 1686, eta berehala eta

⁵ «Mito» hitza bere esanahi positiboan hartzen dut hemen, hau da, errealitatea atzemateko tresna izan daitekeen irudikatze-molde bat bezala, erlijioaren zientzia modernoek adierazi dutenaren arrastoan (M. Eliade, R. Petazzoni, W. F. Otto, etab.): Mitoa ez da zerbait absurdu, nahasi eta ulertezina; aitzitik, mitoa eta kultura errealitateko eta gertakari misterioaren bizipena da.

⁶ Erropmesaren irudia mendeak zehar nola agertu eta aldatuz joan den jakiteko ik. Rocamadour-eko Kongresua: SIGAL, A. (dir.) (1994): *L'image du pèlerin au Moyen Âge et sous l'Ancien Régime*. Rocamadour: Association des Amies de Rocamadour.

⁷ *Los XL libros del Compendio Historial de las Crónicas y Universal Historia de todos los Reynos de España*. Antwerpen. 1571. Arantzazuri dagokion testua: XVII. liburuko XXV. Kapitulua (II. Liburukian, 1126-1132. or.).

⁸ Ik. Garibaik Arantzazu eta frantziskotarrekin izandako harremanen albiste laburra: INTXAUSTI, J. (1998): *Euskal historialariak eta frantziskotarrak. Azterketa historiografikoa*. Arantzazu: EFA, Frantziskotar Argitaletxea. 49-58. Compendio-a gorabehera, ongi etorriko da hemen ohar bat. Frantziskotarrei buruz idatzitako Garibai-ren albistegi aberatsena ez da obra hori, bere bizialdian argitaragabe gertu zen Memorias deitua baizik, orain edizio apain batean kaleratu berria dena: ACHON INSAUSTI, J. A. (dir.) (2000): *Esteban de Garibay y Zamalloa: «Los siete libros de la progenie y parentela de los hijos de Estevan de Garibay»*. Arrasate: Arrasateko Udala. Edizio honetan ere, kanpoko azalean, *Las «Memorias» de Esteban de Garibay y Zamalloa* bezala aurkeztuta dago.

⁹ ARCAYA, J. de (1993): *Compendio historial y antigüedades de la Provincia de Alava. (Un manuscrito del siglo XVII para la historia de Alava)*. Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.

¹⁰ Gasteizko San Frantzisko Komentuak Arabako eta Hiriko Herri-Erakundeei eskaini zizkien zerbitzuak eta elkarrekin izan zituzten harremanak ezagutzeko, ik.: URIBE, A. (1996): *La Provincia franciscana de Cantabria*. Arantzazu: EFA. 90-101. Ik. INTXAUSTI, J. (2002): *Gure herriko frantziskotarrak. Herrietako historia garaikidea (1791-2000)*. Oñati: Arantzazu/Edizio frantziskotarrak. 179-189.

urte berean ondoko bi edizioak, Donostia eta Madril (1690)¹¹.

Historiografia honek guztiak ez zien gutxi lagundu sermolarri eta herritarrei Arantzazuren «santutasun miragarria» eraikitzen. Aro Moderno osoan eta honago ere, indar betean egon zen Santutegiko oroimen misteriko hura, batzuetan zinezko historia zela, bestetan legenda ameskorra, baina betiere herri-sineskizun azkarra. Ondoko historiografiak –argitara emanak, nahiz gabeak– belaunaldi bakoitzari eman zion zegokiona (gogora, adibidez, Rodríguez Pastor, 1880), Lizarralde bere lana beste molde batez egin zuen arte.

Dena den, Arantzazuren «eraikuntza» hori, esan dugu, kantategi herritarrak hasia zuen, eta historia-larien eskuetatik pasatu ostean, bertso eta olerki landuetara heldu zen, eta da, e. b. XIX.ean Arrese-Beitiarekin, eta bereziki XX. mendean. Hain zuzen, Salvatore Mitxelenaren lana, Historia hori olerti bihurtzekoa izan zen, Santutegiari epika mistiko-herritarra emanaz¹². Berehala, oso bestelako gisa batean, B. Gandiagaren sorkuntza etorri da, lur gordinari eta gizarte soziologiko errealagoari lotua, iragana eta modernitatea modu miresgarri batean elkartuz¹³. Eta interpretariok ez dira bakarrak izan.

Horregatik, adibidez, zaila da Santutegi hau gaurko Oteiza, L. Muñoz edo Gandiagarik gabe ulertzten, baina are zailagoa oraindik, izangune erreferentzial bilakatutako hau –euskal iraganaz eta biziaz bazkatu eta alhatua, eta erlijiotasunaren arragoa dena– biziera frantziskotarrak gabe konprenitzen. Eta frantziskotartasun honetaz esan nahi dut zertxobait.

FRANTZISKOTARRAK ARANTZAZUN, ARANTZAZUTIK

Santutegietan, bertako arduradun gisara erlijiosoak (fraide eta moja) jartzeko tradizioa izan da Eliza Katolikoan, hainbat aldiz halakoak Ordenaren

beraren jatorrizko Santutegiak direlako, baina sarrigotan, beste edozein Santutegiri zerbitzu onak eta segida historikoa segurtatzeko ere. Montserrat beneditarrek zaindu izan dute, Extremadurako Guadalupe jeronimotarren esku egon zen 1389az geroztik, eta orain frantziskotarrek dute berorren ardura. Honelako kasuak ugariak dira Santutegien historian. Ordena erlijiosoen presentzia hau Euskal Herrian ere ezaguna dugu, eta Aro Garaikidean indarberritu ere egin zen (beneditarrek Estibalitzen, josulagunak Xabier-en, pasiotarrak Angoston edo Deustuan, e. b.).

Frantziskotarrek, XIII.etik bertatik, izan dute Santutegi-tradizio hau: lehenik, Italiako beren Santutegietan (Asis eta Unbria osoan), eta batez ere Kristandadeko Santutegirik beneragarrietasun, Palestinako Lur Santuetako elizetan, bertako zaintzaile katoliko ofizialak izan baitira ordutik hona (Jerusalem, Belen, Nazaret eta abar). Gurera gatzela, orain ere, erbesteko bi Santutegitan ari dira lanean Euskal Herriko frantziskotarrak: Burgos-ko La Aguilera-n (San Pedro Regalado: 1906) eta Kantabriako probintzia zibilean, Liébanako Sto. Toribio-n (1959)¹⁴.

Hortaz, pentsa daiteke bostehun urte daramatzaten Arantzazuko Santutegia zer den fraide euskaldun hauentzat, eta alderantziz: Bertan bizi izanez, nolako ekarria egin dioten Santutegiko bizitzari bost mende horietan.

Ezaguna da, XIII. mendetik hasita eta gure Aro Modernoan zehar, Euskal Herrian fraide frantziskotarrek izan duten leku nabaria, erlatiboki orduan handiagoa ondoko Garaikidean baino. Hiriburu guztietan komentu handiak izan zituzten, bana guxtienez (Iruñea, Baiona eta Donostia) eta bina ere (Gasteiz eta Bilbo). Eta moja frantziskotarrak ere Euskal Herri osoan barreiatuak zeuden, Hegoaldean bereziki (gaur egun ere oraindik badira 34 Monasterio). Hiriburuetatik kanpokoez gain, herrieta-

¹¹ Gamarra-ri egotzi zaion historia anonimo eskuizkribatua Santutegian dago, eta Villasantek paratu zuen berorren edizio inprimatua: [GAMARRA, G. de] (1966): *La más antigua historia de Aránzazu (1648), editada ahora por primera vez*. Vitoria. (Scriptorium Victoriense-ren separata). Egia esan, baten lehenagotik beste Historia bat, hau ere arabar batena (Martin Okarizko-rena), baina galdurik dugu berau. Zinez, Luzuriaga izan zen XVII-XIX. mendeetako Santutegiko historialari ofiziosa, eta pareko beste lehiakide inprimaturik gabe, hedatuena: LUZURIAGA, JUAN DE (1686): *Paranympho Celeste. Historia de la mystica zarza, Milagrosa Imagen y Prodigioso Santuario de Aránzazu de los Religiosos Observantes de N. Seráfico Padre San Francisco en la provincia de Guipúzcoa de la región de Cantabria*. México: Hros. y Vda. de Bernardo Calderón. 1690eko bi edizioak Pedro de Huarte-k (Donostia) eta Juan García Infanzón-ek (Madril) egin zituzten. Premia larria zegoen, nonbait, hain urte laburretan hiru argitaraldi egiteko.

¹² Mitxelenak bi lan esanahitsu utzi zizkigun: bata, poetikoa (*Arantzazu. Euskal sinismenaren poema*. 1949) eta bestea, historikoa, Lizarralderi jarraiki (*Ama-semeak Arantzazuko kondairan*, 1951).

¹³ Elorri-n, bat-batean, Arantzazu berri eta olerkitu bat erakutsi zuen Gandiagak (1962), eta ondoko lanetan, mundu teluriko sorgindu hori galdu gabe, euskal gizartera (*Hiru gizon bakarka*, 1974), hirira (*Uda batez Madrilén*, 1977), poetaren bere baitara (*Denbora galdu alde*, 1985) eta fraide-anaiartera (*Gabon dut anuntzio*, 1986; Ahotsik behartu gabe, 1997) egin zuen jauzi, jarraian eta aldi berean denetan bizi zelarik.

¹⁴ Liébana-ko kasu honek ongi erakusten du Ordena batek nola lagun lezakeen Santutegi baten garapen sozio-pastorala. Izan dute euskal frantziskotarrek antzeko beste esperientzia bat ere, Ameriketako Boliviako Copacabana-n (Boliviako Zaindaria den Andre Mariaren Santutegian).

ko Fraide-Etxeak zeuden, noski, eta hauetan handiena, Arantzazukoa, hain zuzen.

Arantzazuko Komentua salbuespen nabarmena izan da, bere lekumendu geografikoagatik eta fraide-kopuruaren aldetik: mendi galduan egon arren, bertako Fraidearte Hiriburuetako Komenturik handienetakoen parean zegoen bizilagunez, eta gainetik ere bai inoiz, eta Gipuzkoako Komentu frantziskotarretan lehenengoa zen, Tolosa (1587) edo Donostiakoaren (1606) aurretik, adibidez.

Bideak, zeuden gisan egonik, Luzuriagaren mirari txundigarrien artean jarri behar da halako lagunartean mantenua... Horregatik ere, beren zeregin pastoralari helduz, Santutegiko fraideak erlijio-bizitza sustatu, erromesak erakarri, predikariak herrietara bidaltzen eta kristau-herriaren beharretara adi bizi izan ziren, Santutegian bertan eta kanpoan. Oso nolabait ezagutzen dugun historia da hori, oraindik.

Badirudi Santutegiko eliz bizitza gidatzen oreka ona lortu zela Arantzazun, frantziskotarren gidaritzapean. Hau da, erlijiotasun herritarrak frantziskotarren tradizioetik jaso zituen eliz ohitura osagarriak, erromesaren otoitz- eta ibilera-kodea osatu eta txukunduz. Horri esker, Kalahorrako Diozesian, eta bestetan, bere gehiegikeriengatik nahikoa susmagarri gertatu ohi ziren Ermitetako jaiak eta ospakizunak (gogora Sinodaletako Arauak), hemen beren muga itxurazkoagotan edo gorde ziren, Lizarralderen ustez.

Ordenaren tradizioan zegoen, bestalde, erromesaldiena ere, San Frantzisko Asiskorengandik berarengandik hasita, eta, beraz, kristau erromesa ez zen fenomeno ulergaitza frantziskotarrentzat¹⁵. Horrela, «Kantabriako Probintzia» deituriko fraide-barutia bilakatu zen, hemen, erromesaldiak Arantzazura bultza zitzakeena. Iragan mendeetan, pentsa daitekeenez, hala gertatu zen Gipuzkoa hurbilean eta Araban batez ere (azken Herrialde honetakoa nabaria dbaita, XVII-XVIII. mendeetan, frantziskotar arabarrek lagunduta). Frantziskotartasunak, ba, Santutegiko erromes-errituala ez ezik (gurutzebidea, eliz jaiera frantziskotarrak, Sortzez Garbia, etab.), erakarmen-perimetro sozio-geografikoa zabaldu-finkatzen lagundu zion Santutegiari.

Arantzazuko Fraidearte handia izan dela esan dugu, eta hola da. XVI. mendetik bertatik hasita, beti gora egin duela esan genezake, apenas beharaldi azpimarragarririk gabe. Eskueran dugu 1585eko estatistika: jada bazeuden Santutegian 36 fraide. Data hartan, ez zen frantziskotarren Frai-

dearterik haziena, baina hurbiltzen ari zen horretara: Komentu frantziskotarretan, Iruñea, Gasteiz eta Bilbo bakarrik zeuden haren gainetik, 40na lagunekin hirurak. Mende bete geroago guztien oso gainetik ageri da Arantzazu, bere 80 bizilagunekin (1680), hurrengoak (Gasteiz) 54 bakarrik baitzitu. XVIII.ean, Gasteiz-ek (78) eta Bilbok (90) oso gora egin zutelarik ere, Arantzazu goragotik nabarmendu zen: 95 erlijioso izan zitzakeen, 1768an¹⁶.

Lehentasun hori mantendu egingo da gero, Esklaustrazioko parentesiaren ondoren (1834-1878). Apurka-apurka goiti eginez joan zen Fraidearte gora-behar eutsi batez, 1960.etan 173 lagun izateraino, inoiz Santutegiak ezagututako fraide-anaiarterik ugariena. 1970etik hona hasi zen beharaldi sostengatu bat: lehenengo kolpean, fraide apaizgai gazteak irten edo Santutegitik Hiriburuetara pasatu zirelako (1978), eta beti Anaiarte zahartuz joan delako. XX. mendearen lehen erdiko 46 urteko batezbesteko adina, 1990.etan 70 urteetara hurbildu da. Gaur egun, 43 lagun dira Arantzazuko fraideak.

Gizonezkoen inguruan emakumezkoak egon dira Arantzazun, ez beti bertan, baina bai hurrean, Oñatiko Sta. Ana eta Bidaurretako Monasterioetan. Moja frantziskotarren hau izan da Santutegiko giza ondarean altxor preziatuetakoa. Mendeurrena ospatzeko parada eskaini digun Agiria bera ere, moja hauen eskuetan gorde da, historiako aldarte gaiztoetatik salbu, Oñatiko Santa Anan. Era berean, Esklaustrazio labur edo luzeagoak suertatzean, Bidaurretan aurkitu zuen Fraidearteak eta Andre Mariaren irudiak ere beren aterpea, XIX.ean.

Horrela, Santutegiak segurtaturik izan du bere fraide-bizitza, eta Esklaustrazio luzean bertan ere (1840-1878), frantziskotar ohiek egin ziren Kapilautzaren kargu, Diozesiko apaiz moduan. Fraidearte handiaren indarrez eta segida leial horren ondorioz, Arantzazuk presentzia behinena izan du Euskal Herrian eta bere kulturari.

KULTURAN, ETA EUSKAL HERRIAN

Monasterio eta Komentuak kultur leku izan direla esan izan da sarritan, batez ere beneditarren Erdi Aroko Monasterio bikainak gogoan izaki, noski. Arantzazun ere horrelako zerbait jazo da, baina ez modu berean, arrazoi berengatik, eta garai berdinetan.

Arantzazuk kasik beti bere Ikastegia izan zuen, Arteak, Filosofia edo Teologia irakasteko. Horren

¹⁵ Ordenako Erreglak "munduan erromes eta arrotz" definitu zituen bere fraideak (2R 6, 2), eta San Frantzisko bera (1182-1226) halaxe ibili zen Italian bertan, eta Lur Santuetara joan zenean (1219).

¹⁶ Jada 1622an baziren 80, eta ondoko mi mendeetan eutsi egin zion Santutegiak bereari. Uribe 1996: 54, 56, 277-278.

ondorioz, jada XVI.ean Liburutegia moldatu zen Santutegian, batzuetan suteetan galdu zena. Hona ekartzekoa da Frai Joan Zumarragakok bere hilburukoan (1548) Arantzazuko Bibliotekarako utzitako liburu-sortarena: hortaz, Liburutegia ez zen zerbait hila, eta berori hobetuz joan nahi zen, ikusten denez, eta XVII.aren hasierako inbentarioak 3.000 liburu zituela erakusten du¹⁷. Mende berean eraikin berria eman zitzaion Bibliotekari, amildegiaren gain etxe-dorre bat jasoz (1650-1653). Probintzia izanberritzean (1876...) berriro ekin zitzaion Liburutegia hornitzeari, eta 1949tik hona biltze-lan aberatsa burutu da, Biblioteka Probintzial izendatu zenetik.

Ikastegiak garbiki eskatzen zuen lanabesa zen Liburutegiarena, baina Santutegian bigarren kultur arlo bat dago zinez maitatua izan dena, eta beste eliz premia batzuei erantzuten ziena: musikarena. Horretan, Santutegiko musika-bizitzak lekuko preziatua utzi du: Musika-Artxibo zaharra (XVIII. mendeko lanez hornitua, batik bat), eta Artxibo berria ere bai (XX. mendeko jarduera nondik nora ibili den jakiteko). Bertako Musika-Kapera Fraidearteak ongi zaindutako zerbait zen, bere musikagile, organo-jole, tresnari, teknikari eta guzti; frantziskotarretan, Bilboko San Frantziskon zegoen antzeko beste Abes-Kapera bat¹⁸.

Musika-tradizio horri beste gisa batean heldu zaio orain, 1965etik hona, Kontzilio-ondokoak erakutsi dituen bideetatik, eta dagoeneko altxor zabala moldatu du Zabala-Beristain-Gandiaga hirukoteak, kantategi liturgiko moduan, Santutegirako bezala Euskal Herriko elizetarako ere¹⁹.

Arte plastikoen munduan Santutegiak izan duen ekarria ezagunagoa da jendeen artean, nahiz eta Aro Modernoan Arantzazun metaturiko sorkari plastikoa bertan sortuak, nahiz hara bildutakoak—1834ko sutearekin galdu ziren²⁰. Baina Santutegiko arte-lan handiak azken bi belaunaldietakoak ditugu, gure garaikoak. I. Monfortek aztertu zuen Basi-

lika Berrikoa, eta E. Kortadik aurkeztu du komentu-barruko ondare artistikoa, Mendeurreneko liburu oroigarrian²¹.

Santutegiko kulturgintzan, hori bezain ezaguna edo da, euskarari dagokiona. Komentuko barne-bizitza arrunta (besterik da Liturgia eta Ikasketak) aurreko mendeetan euskaraz egiten zelakoan nago, nahiz eta ez dugun eskueran horren agiri lekukorik; XX.koan zehaztasun gehiago dugu orain, Agirrebaltzategiren lanari esker²².

Santutegiko bertako zerbitzuak euskaraz eman izan ditu gehienbat, erromeseria euskalduna zelako, noski, eta Santutegiari atxikienak ziren herriak ere bai (bere garaian Arabako Lautada euskaldunekoak barne). Horren ondoan, lehenengo eta behin, aipatzekoa da euskaraz Pastortan euskaraz egindako lana, Parrokia eta elizetan. Horren lekuko da euskarazko sermoitegien artxiboa, orain Labayru Ikastegiak katalogatu duena, eta berehala argitaratzekoa: Arantzazuko predikariak ere badute hor eskurik. Bestalde, garai zaharretako prediku-lana historialariek gogoz aipatu zuten, eta dute²³. XX. mendea ez da horretan atzera gelditu²⁴.

Betebeharreko euskarazko zeregin pastoral horren ondoan, zuzenean euskararen zerbitzuan egindako lana dago. Frantziskotarrek leku estimagarria izan dute, beren euskal idazleen bidez. Iparraldean goizik hasi ziren frantziskotarrak euskaraz idazten E. Materre euskaldun berriaren eskutik (1617), baina, egia esan, jarraipen arrakastatsu handirik gabe (J. Haranburu, 1635; D. Bidegarai, 1675-1679). Gehienbat Zarauzko Misiolari-Kolegioko idazleak gogorarazi izan dira gero, Hegoaldean (batez ere, Añibarro, Zabala eta Uriarte bizkaitarrak), baina ezin da ahaztu Pedro Jose Astarloa (†1821), Bilboko San Frantzisko *Imperial*-eko egoiliarra zena²⁵.

Frantziskotarren idazle-tradizio horretan, ezin da esan Arantzazu aitzindari izan zenik, are gutxiago esan daiteke Arantzazun hori berantiarra izan ez

¹⁷ Uribe 1996: 53-54. Liburutegi honen historiarako ik.: ZUBIZARRETA, K. (1999): "Las Bibliotecas franciscanas de Arantzazu y Zarautz. Retazos de historia", in: ID. (1999): *Catálogo de incunables e impresos del siglo XVI de los Conventos de Franciscanos de Arantzazu y Zarautz*. Arantzazu: Frantziskotar Argitaletxea. 9-18.

¹⁸ BAGÜES, J. (1979): *Catálogo del antiguo archivo musical del Santuario de Aránzazu*. San Sebastián: Caja de Ahorros Provincial.

¹⁹ Eliz kantategi berriaren adibide ona da *Kanta dezagun* deritzan obra, hainbat liburukitan emana (1994...).

²⁰ TELLECHEA IDIGORAS, J. I. (1987): *Arte en el antiguo Aránzazu del siglo XVIII*. San Sebastian: Gr. Izarra.

²¹ MONFORTE GARCIA, I. (1994): *Arantzazu. Arquitectura para una vanguardia*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. Kortadirena, berehala aipatuko den liburuan.

²² Ik. AGIRREBALTZATEGI, P. (2001): "Arantzazuko hizkuntza ekologia-antropologiak", in: INTXAUSTI, J. (dir.) (2001): *Arantzazu. Euskal Santutegi bat XX. mendean*. Arantzazu: Edizio Frantziskotarrak. 136-144.

²³ Lizarralde 1950: 237-256.

²⁴ INTXAUSTI, J; LETE, J. M. (2001): "Arantzazuko sermolariak Herri-Misioetan", in: Intxausti (dir.) 2001: 302-309.

²⁵ Euskal Elizari eta beronen hizkuntz erabilpenari dagokienez, komeni da beraren mendeko atzerapena gogoan hartzea, Euskal Herriaren kristautzetik euskara idatzia jaiotzerainokoa. Atzerapen orokor horren barruan daude Ordena erlijiosoak,

denik; izatez, hagitz berantiarra izan baita, J. A. Ubillos (†1789) Tolosako Komentuan uzten badugu behintzat. Arantzazuko euskal idazleak ia denak XX. mendekoak izan dira.

Hala ere, esan beharra dago, Probintziaren izanberritze ondoren beste Komentuetatik lan egin dutenak Santutegian hezitako lumak izan direla, eta ekoiztu den testu-masa handiena liburutan baino Arantzazuko aldizkarietan eman dela: *Arantzazu* aldizkarian (1921), eta *Egutegia*-n (1947). Hori bai, Eusko Pizkundearen barnean berandu, baina oldar eta egokiera onez iritsi ziren, 1930.etakoko hamarkadatik aurrera: I. Omaetxebarria, D. Garmendia, J. Alustiza, K. Iturria, E. Agirretxe, L. Villasante, S. Mitxelena, K. Iturria, A. Sorarrain, B. Gandiaga, edo *Jakin*-en ildokoak. Eta hauek bai izan zutela Santutegian, hazteko, lur ongarriztatua (barruko giza giro irekiagoa, euskal liburutegia, aldizkarietan enseatzeko aukera, etab.)²⁶.

Idazleen parean, euskalariak daude, hizkuntza bera aztertzerik emanak; batzutan, aipatutako idazleak berak izan dira alor honetara ere etorriak (Omaetxebarria edo Villasante-ren kasuak); bestetan, apenas eman ditzakegu euskal idazletzat, eta euskalari hutsak izan dira (K. Izagirre edo P. Aranguren). Gramatika eta lexikografia izan dira euskalari arantzazuarren lan-eremu maitatuenak²⁷.

Euskalgintzarena bukatzeko, hizkuntzaren status-era gatzozela, Villasanteren Euskaltzaindikoko lan-kidetza instituzionala ezin da ahaztu (18 urtez Euskaltzainburu, batasunaren arazo guztien urteetan), ezta aldizkari (1921...), egutegi (1947...), irratia (1946...) eta telebista (1982...) bidezko euskal lana ere. Balioespen jasoa mereziko duen historia izan da azken mende-erdiko hau, uste dugunez, garai zailetan egin zelako ere bai; XX. mendeko Santutegikoetan kapitulu zabala, zalantzarik gabe.

HOGEGARREN MENDE EMANKORRA

Mendeurrenerako egin diren ikerlanetan garbi geratu da –hala uste dugu– iragan berri dugun men-

dea, XX.ena alegia, izan dela, Santutegiko alde guztiak batera harturik, Arantzazuk historian ezagutu duen goraldirik jasoena, bere osoan oparoena, konplexuena eta agian euskal gizartearen eta erlijiosutasun herritarraren bilakaera bizia ongien islatu duena²⁸.

Aurreko lerroetan aurreratu da zenbait apunte; orain, aipatu gabeko erakunde batzuk ekarriko ditut hona lehenengo (Arantzazuko Kofradia, Gogartetxea, Ikastetxeak, Argitaletxea), eta mende horretako lorpen nagusienak aipatuko ditut gero.

Kofradiak, Gogartetxeak eta Seminario-Ikastetxeak, modu batera edo bestera, milaka lagun asko jarri zuten Santutegiarekin harremanetan, aurreko mendeetan gertatu ez zen molde batean. Kofradia berriaren historia 1917tik dator, eta 30.000tik gora lagun izan zituen bazkide bezala, indarrean egon zen urteetan (1917-c.1970). Batez ere herri euskaldunetan banatuta, sare sozial hori guztiz izaera berrikoa izan zen, eta zer ikusi gutxi zuen garai bateko Oñatiko edo Ameriketako Kofradiako Anaiarte laikoekin. Oraingo hau guztiz eliztarra zen, eta Erakunde honen esanetara zegoen; gehiago, Santutegiaren beso sozial eliztarra zen, horretarako eratu. Izan zuen hedapenean neur daiteke, hein batez, Santutegiaren erakarmena, eta aldi berean, nolabait, Santutegitik gizarteko indarrak gidatzeko gaitasuna. Frantziskotarrentzat, oro har, Euskal Herri osoan Hirugarren Ordena izan zena, Arantzazura begira Kofradia hau izan zen herrietan.

Gogartetxeak fede-barnetasun hobe bat bilatu zuen bere jardunean, pertsonalizazio sakonagoa. 1936an hasi zuen bere lana, eta gaurdaino eutsi dio bereari, gero eta aniztasun zabalagoz. Milaka lagun izan dira hona iritsi direnak ere, estatistikek diotenez. Fraideak Parrokietan bizi gabe, jendearekiko harreman hurbila lagundu izan du Gogartetxeak, eta fraide eta herritar, elkarrekin bilaketa pertsonalerako aukera eman izan die. Santutegiaren sozializazioan Gogartetxea lanabes baliosa izan dela baieztatu daiteke.

Argitaletxearenaz zerbait esan da arestian; gogorra dezagun orain aldizkariaren hedapena, eta liburu-

lehenengo monjeen hizkuntz tradizio beneditarra eta, gero, XIII.etik aurrera Eskeko Ordenena. Hauen artean lekutzen da mugimendu frantziskotarra, Euskal Herrian jada XIII.ean ongi errotua. Jakina denez, lehenengo euskal idazle ia denak elizgizonak izan ziren, baina XVI-XVIII. mendeetakoak. Berandu jaiotako idazketa-tradizio honetan leku seinatua izango dute aipatu ditugun idazle frantziskotarrek.

²⁶ Ik. TORREALDAI, J. M. (2001): "Fraide frantziskotarren euskarazko liburuak", in: Intxausti (zuz.): 327-334.

²⁷ Gogora dezagun zenbait lan: P. A. Añibarro-ri Villasantek paratu zion edizioa: *Voces Bascongadas diferenciales*, (Bilbao, 1963); I. Omaetxebarriaren *Euskera* (euskal aditzari buruzko azterlana, 1959); Kandido Izagirre-ren *Vocabulario vasco de Arantzazu-Oñate* (1970) eta Nafarroaz emandakoak, edo Villasante-ren *Axular-en Hiztegia* (1973), «Eleizalde Bilduma» (1972...) edo *Euskararen auziaz* (1988).

²⁸ Agertu berria da *Arantzazu. Euskal Santutegi bat XX. mendean/Un Santuario vasco en el siglo XX* (Arantzazu: Edizio Frantziskotarrak), aipatu ikaslanen dibulgazio-liburua, eta ondoko hilabeteetan izango da kalean Arantzazu. *Ikerlan eta saiok/Investigaciones y ensayos* deritzan argitalpena. Santutegiko XX. mendea ezagutzeko tresna izan nahi dute biek.

gintza bakarrik, ia laurogei urtetan bertako moldiz-gintetik autonomian egina²⁹.

Kofradia eta Gogartetxea berean ari zirela, herri-herrira iristeko (erakunde bat izan gabe, baina bere antolaera mugikorarekin) lan-prozedura eraginkorra izan zen, mendearen erdian, Herri-Misioena (1945-1965). Ez da samurra gaur Misio haiek herrietan pizten zuten zirrara aditzera ematea. Arantzazuko fraideek halako 93 Misioalditan hartu zuten parte (1944-1984). Santutegiak ez zuen gutxi irabazi Misio haietatik, eta urte bertsuetako Erromesaldi eta Igoaldiek ere bai (mutilak, 1952-1968; neskak, 1959-1967). Horrela borobildu zen betiko eta mende honetako Erromesaldien ziklo berria, 1910ean hasi eta 1918tik aurrera gora etorritakoa.

Erromesalditan, XX. mendea ez da aurreko mendeetatik atzera geratu, itxura guztiz. Egin ditugun lehen zundaketek hori eman dute aditzera. Hurbileko betidaniko tradizioak oro har lehengoan iraun du, aldaera gutxi batzuekin; banakako erromesenak, berriz, gure herriko erlijiotasunaren itxuraldaketa erakusten du, eta ibiltzeko ohitura berriek dakartena, noski (autoak ez dira alferrik sortu eta ugaritu). Urrunagoko herrietatik antolaturiko taldekako Erromesaldiena izan da XX. mendeko berritasunik handiena, alor honetan. Mende horretan, epekapen bat eman behar balitz, haxe izan daiteke zuzenena edo: 1910-1939, Zaindaritzaren inguruko lehen mugimendu berria; 1939-1970, herri eta eskualdeetako Erromesaldi handien urteak; 1970-2000, Krisi erlijioso eta Kontzilio-ondoko erromes-erak.

Herrian hori gertatzen ari zen bitartean, Euskal Herriko Erakundeekin ere harreman-modu berriak sortu ziren XX.ean. Gasteizko Diozesiak hartu zuen honetan aurrea, 1881eko Erromesaldiekin eta 1886ko Koroazioarekin. 1918ko datak berretsi baik ez zuen egin prozesu instituzional hori, Gipuzkoako Zaindaritza eskatu eta Erromak onartu zuenean, Udalek eta Aldundiak eskatutako Zaindaritza baitzen. Hala ere, ez zen hori galerarik gabe gertatu, Zaindaritza eta Koroazioek herrialdekatzejoera bat ireki baitzuten Euskal Herriko Santutegien artean.

Juxtu bestelako esanahia izan zuen Basilika Berriko eraikuntzak: Aita Pablo Letek Euskal Herri osoari dei egin zion, herritarrei bezala agintariei ere, eta artistei (1950). Horrek batasun-oinarria jarri zion Santutegi-proiektuari. Azken buruan, Erromako debekuek eta bertako eragozpen ofizialek ere on egin zioten beroni. Orduan asmatutako bidetik doa harez gero Arantzazu.

ETA ETORKIZUNAZ ZER?

Santutegia –bere funts jatorrenean– Irudi, Santu edo Gertakizun misteriko baten ingurura biltzen den erromes sinestunen lagunartea da; leku bat, beraz, eta elkartasun ibiltaria baina iraunkorra. Ondoren datoz, gainerako gehigarriak, elkartasun hori aberastu eta indartuko dutenak, taldeko erreferentzi gune bezala (Fraideartea, Kofradiak, Erromesaldi antolatuak; kulturgintza, zerbitzu-puntu) eta sinbolo gisa (Zaindaritza; Santutegiarekiko iruditeria soziala), bere lehen herritasunetik zetorrena erakunde-mailara ere igo araziz. Prozesu historiko honetan, Santutegiaren zaintzaileek zeregin ardatza dute, betiere tokiko “misterioa” aurkeztu eta aditzera ematen eta erromesgai direnei begira beren zerbitzu librea eskainiz.

Gizarte sekularitu batean horrek guztiak zailtasun gehituak izango ditu beti: izatez, misteriorako irekitasuna ez da nahitaezkoa gizaki modernoagan; misterioaren didaktikak bizipen berriak behar ditu; herritarrengan, halakorik denean, aniztasun erlijioso gero eta anitzagoa da, ez-dogmatikoa, erakunde kanpokoa; gutxi batzuek izango dute, gaurgeero, fede irabazi garailearen praktika, eta Santutegian nahi dena sarriagotan izango da fede-nahiaren edo ezaren bilaketa... Izango da, gainera, Santutegi jakin batean balio ez-erlijiosoak maite eta bilatzen dituen.

Mendeurrena berrikuntza-ahalegin bezala begiratu da, arrazoi sozio-demografikoengatik eta espero den herritarren erlijiotasun ezberdin batengatik oso bestelakoa izango den biziera erlijioso bati bide emateko parada bezala. Zein etorkizun nahi den eta zein den posible Arantzazun, izan da Mendeurrenaren atzetik egon den galdera.

Laster batean -luze jota hurrengo hamar-hogei urteetan- bidegurutze ezezagun batean izanen da Arantzazu: bertako Fraideartea (Europa Mendebalde honetako beste Institutu Erlijioso, Monasterio eta Komentuetan bezalatsu) bere izaera ttikienera etorriko da, baina, beharbada, inoiz gutxitan bezalako baliabideak izanen ditu eskuetan (Basilika Berria, Kultur Topagunea, Gogartetxe berritua, Natur Parkea...). Eta historiatic datozkion ondare zabalak eta eskarmentua bere indar ederrean dituela.

Badago itxaropenerako arrazoirik, mundu postmoderno honetako zalantza-malantza guztiak bada ere.

Euskal Herriak –sinestun eta ez-sinestun askok– gure herriko erreferentzi puntutat hartua du Santutegi hau, dituen balio erlijioso eta ez-erlijiosoengatik. Kapital estimagarria da hori berrikuntza bate-

²⁹ Ik. Intxausti (zuz.) 2001: 311-326, J. A. Guerra eta J. Letona-ren lanak.

rako, eta berriz ere herritarrei beren elkartasuna eskatzeko. Uste dudanez, Arantzazuko zaintzaileek badute aski heldutasun garai berriak ulertu eta proposamen erakargarriak egiteko. Azken hamarkadetan frantziskotarrek bizi izandako beren iturrien birgogoetak³⁰ eta gure Euskal Herrian Santutegi horretatik bizi izandako esperientziak, begira-puntu

argitsuan jarri ditu bertako fraideak, bide berriak asmatu ahal izateko.

Ikusi dugun iraganetik eta egungo errealitatetik begira, etorkizun emankorra bat opa diogu gure herrian halako historia ederra bete duen Arantzazuko Santutegiari.

³⁰ Erlijosos-mundu hau sobera ezagutzen ez duenarentzat, komeni da argibideren bat ematea. Iturri frantziskotarren ezagutzan bide luzea egin da XX. mendean, aurrekoetan itzalpera botatako testuak bildu eta beren jatorrizko balio zuzenean jarri direlako. Gaur, bestalde, Alemania, Italia edo Frantzian pentsamendu-lan gaitza egin da iturrioren aztertzen; Espainiak ere parte hartu du horretan, neurri apalagoan. Euskaldunen ekarpena baliosa izan da zenbait libururen bidez, eta Arantzazun egindako argitalpenen bidez. XIII.eko historia frantziskotarrak gaur eguneko ezagutza zein puntutan dagoen jakiteko: ALBERZONI, M. P. (zuz.) (1999): *Francisco de Asís y el primer siglo de historia franciscana*. Oñati: Ed. Franc. Arantzazu.